

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroarekiko harremana garrantzi handia du. Azken finean, harreman ona edo egokia edukitzea bultzatzen du gure zerbitzua aurrera eramateko. Horretarako beharrezkoa da **hainbat komunikabide** sortzea gurekin harremanetan egoteko, edozein kezka izanez gero guk konpondu ahal izateko.

- **Zerbitzu pertsonala** eta aurrez aurrekoa eskainiko dugu, horretarako guretzat ekonomikoki eskuragarria den **lokal** bat alokatuko dugu. Hori eginda, gure bezeroak askoz ere modu zuzenagoan artatuko ditugu.

- **Web orri** bat sortuko dugu, bezeroek zalantzak lokalera joan beharrik gabe argitu ahal izateko. Hemen agertuko da; zer da “MALI”, gure elkartearen oinarrizko informazioa, gure **helburua**, zakarrontziak non dauden kokatuta eta nola funtzionatzen duten, hau da, txartela irtetzeko ze botoiari eman behar duten azalduta egongo da, adibidez.

- **Udaletxean informazioa** utziko dugu, bai papeleten bitartez bai bertako langileen laguntzaz, hau da, udaletxeko informazio guneko langileei gure lokalaren helbidea jakinaraziko diegu eta gure papeletak bistan uzteko eskatuko diegu.

- Bezeroa gure zerbitzua erabiltzeari ez usteko baliabide desberdinak jarriko ditugu martxan;
 - Emailak edo mezu elektronikoak bidaliko ditugu, berriak edo egiten ditugun edozein aldaketari buruz ohartarazteko.
 - Musukoaren erabilpen egokiaren formakuntzak eta segurtasun neurriak errespetatzearen garrantzia azalduko dugu.
 - Horrez gain, musukoak birziklatzeari eta gure proiektuari ematen diogun garrantziaz informatzeko tailerrak ere egingo ditugu.

